



## **ALKATEAREN MEMORIA: 2019KO AURREKONTUA**

Aurrekontu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan, eta Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egoera eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera eman da.

### **1.- EGOERA EKONOMIKOA**

Udal honen egoera ekonomikoa normalizat har daiteke. Izan ere, zerbitzuak emateko lortutako baliabide ekonomikoak (tasen bidez) zerbitzuek duten kostua baino txikiagoak izan arren, alde hori udal aurrekontuan agertzen diren beste finantza-baliabide batzuekin osatzen da.

Orain arte, inbertsio-gastu handiak finantzatzea beharrezkoa izan denean kreditu-eragiketaren baliabidera jo da. 2018an Idiazabalgo Udalak kreditu-eragiketa du indarrean, 2010eko abenduaren 3an sinatutakoa, 1.500.000 eurokoa, Txomenenane parke publikoa eskuratzeko inbertsioa finantzatzera zuzendua, 15 urterako; 76.179,08 euro/urteko

### **2.- FINANTZA EGOERA**

Erabilgarri dauden baliabideak biltzeko arintasunari eta aldizkakotasunari esker, gastuak garaiz ordaintzen dira. Hortaz, ez da espero urtean zehar Diruzaintzan gorabehera edo desfaserik sortzea.

### **3.- ONDARE EGOERA**

Idiazabalgo Udalak Pilarrena tabernaren zesioaren truke kanona jasotzea aurreikusten da.

Ekipo informatiko berriak eta altzari berriak erosten ari dira bulegoan aldaketa txikiak daudelako, 2019ko aurrekontu-proiektuan jasotzen dira zorra eta amortizazioa.

### **4.- AURREKONTUA EGITEKO KONTUAN HARTUTAKO IRIZPIDEAK**

2019ko ekitaldirako aurrekontu-proiektua egiteko abiapuntua izan dira zerbitzuen kostuak eta aurreko urteko aurrekontuaren gauzatzeari buruzko informazioa. Saiatzen da gastu arruntak aurreikusitako diru-sarreraren muga barruan gelditzea.

### **5.- AURREKONTUAREN HELBURUAK**

2019ko ekitaldiko aurrekontu proposamenak gastu arruntak kontrolatzea, ahalik eta baliabide arruntak inbertsiora bideratzeko (Gurutze berri urbanizazioa gauzatzeko ahalik eta baliabide financiero gehien izateko). Herritarren proiektuak eta interes publikoko jarduerak sustatzeko diru-kontsignazioari eusten zaio.

## **GASTUAK**

### **1. KAPITULUA. LANGILE GASTUAK**

Langileriaren soldata igoera, karpu publikoaren soldata igoera eta programako langileen gastuak aurreikusten dira.



**2. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN GASTUAK**

**2. kapituluak** Musika eskola zerbitzu publikoaren ordainketa bere osotasunean aurreikusten da (lankidetzaz hizarmena sinatu zen (sarrerak ere aurreikusita daude))

**3. ETA 9. KAPITULUAK. FINANTZA GASTUAK ETA FINANTZA PASIBOAK**

**3. kapituluan** (Finantza gastuak) eta **9. kapituluan** (Finantza pasiboak) **jasotzen dira.**

**6. KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK**

Aurreikusten da HAPOren izapidetza bukatzea, horrekin batera udalaren atzeko partzela eskuratzea eta Gurutze berri urbanizazioaren proiektua, ondoren, urbanizazioa egin ahal izateko.

**SARRERAK:**

**1-3: KAPITULUAK:** Aurreikusten da tasen igoera txikia, zerbitzuen kostuak estaltzen laguntzeko;

**4.KAPITULUA:** Foru funtsaren igoera aurreikusita dago.

Transferentzia arrunten artean nabarmendu behar dira Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako ekarpenak musika eskola zerbitzua finantzatzeko.

Idiazabalen, 2018ko abenduaren 2an.

Alkate-udalburuak,  
Ioritz Imaz Baztarrika